

## "EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2014-2020 EGF PROGRAMA ERAGILEAREN 2016KO URTEKO TXOSTENAREN HERRITARRENTZAKO LABURPENA"

Europako Batzordearen 2015eko abuztuaren 27ko Erabakiaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 EGF Programa Eragilea. Bada, Euskal Autonomia Erkidegoak arlo sozioekonomikoan eta lanekoan dituen premiak konpontzeari zuzendutako jarduerak jasotzen ditu Programak Eragile horrek. Guztira, 107,65 milioi euroko aurrekontua dauka eskura. Horien erdia (54,12 milioi euro) EBk emango ditu, eta EAEko erakundeek emango dute beste erdia. Euskal gizartean eragin handiagoa sor eta balio erantsia gaineratu dezaketen jardueretan kontzentratu da eskura zegoen finantzazioa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak parte-hartzea bultzatzeaz gain, hainbat lurralde-eremutako beste eragile ekonomiko eta sozial batzuek edota gizarte-sektoreak parte hartzea sustatzeko asmoz diseinatu da Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 EGF Programa Eragilea. Programa eragilearen erakunde onuradunak hautatzeko lehiaketa-prozedura baten bidez eratu da parte-hartze hori. Balorazio- eta ebazpen-prozesua amaitu ondoren, 13 erakunde onuradun eta proiektu onartu dira, eta gaur egun egiten ari dira.

<b>Erakunde onuraduna</b>	<b>Emandako proiektua</b>	<b>Ardatza</b>
Vitoria-Gasteizko Udala	Emprende Local 20	1_OT8 ARDATZA
Garapen - Garapen Agentzien Euskal Elkartea	HAZI proiektua	1_OT8 ARDATZA
Bilbao Ekintza	Bilbao Sortzen	1_OT8 ARDATZA
Gipuzkoako Foru Aldundia	Autoenplegua Sustatzen	1_OT8 ARDATZA
Donostiako Sustapena SA	Donostia Gazteekin: Gaituta baina langabezia dauden gazteak lan-merkatura gorabidean dauden hiriko sektore estrategikoetan sartzeko ekimen egokitua.	1_OT8 ARDATZA
Euskadiko Lan Sozietateak (ASLE)	Lanzituz-Lan Sozietateak Sortuz	1_OT8 ARDATZA
Ehlabe	Auker Ability	2_OT9 ARDATZA

<b>Erakunde onuraduna</b>	<b>Emandako proiektua</b>	<b>Ardatza</b>
Gizarteratzeari begirako Sendotu Aldi Berean Elkartea (Peñascal, Agiantza, Cáritas, Erroak, Zabaltzen, Gaztaroa eta Araba)	Sendotu Aldiberan	2_OT9 ARDATZA
Suspergintza Elkartea	Emak-Tiva	2_OT9 ARDATZA
Emaús Bilbao SCIS	Gizarteratzea i3	2_OT9 ARDATZA
Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	Gizarte-bazterketan dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsona-taldeak landa-ingurunean txertatzeko zerbitzua	2_OT9 ARDATZA
Bizkaiko Foru Aldundia	Bizkaian Gizarte Berrikuntza Sustatzeko programa	6_IS ARDATZA
Escuela Profesional Comarcal Lea Artibai, S. Coop.	TEP proiektua, Technology Entrepreneurship Program	6_IS ARDATZA

2016ko exekuzio-txostenak jasotzen duenez, urte horretan amaitu dira askotariko erakundeek finantzatu dituzten jarduerak; hortaz, kontuan hartzen badugu erakunde onuradunak ez zirela 2015eko hirugarren hiruhilekora arte hautatu, programarekin lortu nahi denaren hasierako lagina bakarrik erakusten dute 2016ko emaitzek.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, EAeko enplegu-politika aktiboetan organismo eskuduna izaki, erabilgarri dagoen aurrekontuaren erdia dauka esleituta. 2016an, batera finantzatu diren hainbat jarduera-ildo abiarazi ditu, baina enpresentzako laguntza-lerro bakarra amaitu da. Laguntza-lerro horrekin, desgaitasunen bat duten pertsonak kontratatu ahal izateko profesionalen laguntza ematen zaie enpresei. Horri esker, 173 pertsona kontratatu dira (66 emakume eta 107 gizon).

2016an amaitu diren jarduera guztietatik, 2.604 pertsonak atera dute onura, eta horien % 37,4 emakumeak izan dira.

Langabezian eta jardunik gabe dauden pertsonak enplegura sartzeari errazteari zuzendutako ardatzaren orientazio-, prestakuntza- eta laguntza-eragiketen bidez, langabezian zeuden 122 pertsonak (72 emakumek eta 50 gizonen) lortu dute enplegua. Bada, arreta eman zaien pertsonen % 57,4 laneratu dira.

Gizarteratzea sustatzeari eta pobreziaren edo edonolako diskriminazioren aurka borrokatzeari bideratutako ardatzaren barruko eragiketek, zeintzuek gizarteratzeko ibilbide integratuaren formatua edukitzen duten funtsean, gizarte-bazterketan edo gizarte-bazterketan egoteko arriskuan zeuden 185 gizon eta 99 emakume lanean



txertatzea lortu da, eta gizarte-bazterketan egoteko arriskuan zeuden 138 pertsonak gizarte-ekonomiako enpresetan beren enpleguari eustea bermatzeko jarduerak garatu dira.

Azkenik, 6. ardatzari dagokionez, eta gizarte-berrikuntzako ekintzen bidez, 9 pertsonak lortu dute enplegua, hau da, parte-hartzaile guztien % 81,2k lortu dute laneratze-maila bat, parte hartu ondoren.

Beraz, oro har, 2016an Programa Eragilearen esparruan egin diren jarduerari esker, 415 pertsonak (174 emakume eta 241 gizonak) lortu dute enplegu bat. Euskal Autonomia Erkidegoan 2016an sortu diren 25.400 enpleguetatik % 1,6 dira horiek (10.200 emakumeak eta 15.200 gizonak).

2017an, Programa Eragileak lan-merkatua hobetze aldera ematen duen laguntza areagotzea ahalbidetuko duten eragiketa berriak garatzen jarraituko da.